

Ebazpena, 2026ko otsailaren 27koa, Unibasq-eko zuzendariarena, Unibasq- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluaren otsailaren 3ko ERABAKIAREN bidez onartutako deialdia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko lan-kontratua duten irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzen 2025. deialdia onartu zen.

2026ko otsailaren 3an, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluaren Erabakia onartu zen. Horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitatean lan-kontratua duten irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzen 2025. deialdia onartu zen. Erabaki horren hamaikagarren oinarrian ezartzen zenez, Unibasqeko Zuzendaritzak Gobernu Kontseiluak ebazpen bidez onartutako deialdia argitaratuko zuen, eta deialdia zehazteko interes orokorreko arrazoiengatik beharrezkoak diren zuzenketak, epeen doikuntzak eta beste jarduerak batzuk egin ahal izango zituen. Horregatik, erabakiaren zazpigarren oinarriaren lehen atala zehaztu da, ebaluazio-prozedurari dagokiona.

Horregatik guztiagatik,

Bakarra. -Euskal Herriko Unibertsitateko lan-kontratua duten irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzen 2025eko deialdia argitaratzen da.

Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak 87 artikuluan ezartzen du unibertsitate publikoetako lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileen ordainsari-araubidea 77.2. artikuluan aipatzen den araudiaren arabera zehaztuko dela, eta, nolahi ere, aplikatzeko den autonomia-legeriaren esparruan eta negoziatio kolektiboaren bidez. Autonomia-erkidegoek ordainsari gehigarriak ezarri ahal izango dituzte, banakako merezimenduei lotuak, honako eginkizun hauetako bakoitza betetzeagatik: irakaskuntza-jarduerak, ikerketa-jarduerak, ezagutza eta berrikuntza transferitzeko eta trukatzeko jarduerak, eta kudeaketa-jarduerak.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 2024ko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak 34. artikuluan ezartzen du, Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko irakasleen kidegoei orokorrean dagozkien antzeko osagarriak ezar ditzakeela, bai zenbatekoari bai baldintzei dagokienez, Lege honen 14.1 artikuluko kategorietako kontratu iraunkorra duten irakasle finkoentzat, bai eta ikertzaile propioentzat ere.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean, UPV/EHU) irakasleen eta ikertzaileen ordainsariei buruzko 2028ko martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen ditu lan-kontratupeko irakasleen eta ikertzaileen ordainsariak, eta horien artean daude 8. artikuluan zehazten dituen ikerketa-merezimenduengatik ordainsari osagarriak. Aipatutako 8. artikuluko horrek, hirugarren atalean, hau dio: "Unibasqek ikerketa-jarduerak ebaluatuko du, Ikerkuntza- jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalarekin batera" (gazteleraz, Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora delakoa; aurrerantzean, CNEAI).

Koordinazio horren arabera, 2024ko deialdira arte, Unibasqek deialdia egiten eta ebazten zuen, eta ebaluazioa, berriz, ANECAk egiten zuen, zegokion hitzarmenaren bidez. Prozedura horrek UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzen zirenean horrela lortutako ikerketa-tarteen aintzatespena bermatu izan du. Agentzien arteko koordinazioari buruz LOSUn xedatutakoa garatuz, komenigarritzat jotzen da 2025eko deialditik aurrera, hau barne, Unibasqek egitea prozesu osoa, bere Ebaluazio-batzordeen bidez. Deialdi bakoitzean irizpide eta prozedura berberak erabiliz lortzen da CNEAIrekiko koordinazioa, horrela ebaluatutako parte positiboen ekitatea eta aintzatespena bermatuz, eta, aldi-aldi, ANECAren eta Unibasqen arteko hitzarmen batean jaso behar da parte horien aintzatespena.

Legediak UPV/EHUko lan-irakasle eta ikertzaile iraunkorren ebaluazioari buruz hitz egiten badu ere, plantillaren profileen eta jurisprudentzia berriaren izan diren aldaketak kontuan hartuta, Unibasqeko Gobernu Kontseiluak egokitzen jo du UPV/EHUko irakasle lan-kontratudunen



ikerketa-jarduera ebaluatzeko deialdiak subjektiboki zabaltzea aldi baterako irakasle lankideei, irakasle atxiki eta laguntzaile doktoreei, eta kategoria horietako guztietako lanposturen bat bitarteko gisa betetzen duten irakasle eta ikertzaileei.

Honegatik guztiagatik, Agentziaren Gobernu Kontseiluak honako hau

ERABAKI DU:

Bakarra.- Honako UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile kategoria hauen ikerketa-jarduera ebaluatzeko deialdia onartzea eta argitaratzea: UPV/EHUko irakasle kontratatu iraunkorrak; UPV/EHUko irakasle atxiki, irakasle laguntzaile doktore eta aldi baterako irakasle lankideak; eta aipaturiko kategoria horietako plaza bat -lehiaketara atera bitartean- betetzen duten UPV/EHUko bitarteko irakasleak, honako oinarri hauek aintzat harturik:

OINARRIAK:

Lehenengoa. Xedea.

Deialdi honen xedea lan-kontratu iraunkorra duten irakasle eta ikertzaileen ikerketa-jarduera ebaluatzea da, honako kategoria hauetan: irakasle oso, irakasle agregatu, irakasle atxiki, irakasle laguntzaile doktore edo lankide; kontratu iraunkorra duten Doktore Ikertzaile; eta kontratu iraunkorra duten UPV/EHUko Ikerketa Irakasleak. Halaber, deialdira aurkeztu ahal izango dira aurreko kategorietako plazaren bat, arauz bete arte, bitarteko gisa betetzen duten lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileak.

UPV/EHUrekin 2025eko abenduaren 31n adierazitako kategorien batean kontratua daukaten pertsonak soilik izango dute ebaluazio hau eskatzeko eskubidea.

Bigarrena. Ebaluazio eskaera egiteko bete behar diren baldintzak.

Aipatutako irakasle edo ikertzaileak jarraian aipatzen diren egoeretako batean aurkitu beharko dira:

a) Ebaluazio positiboa jaso duen azken tarte 2019ko abenduaren 31n amaitzen bada edo aurreko urteetan amaitu bada.

b) Inoiz aurkeztu ez izana eta 2025eko abenduaren 31n ebaluagarri diren gutxienerako 6 urteak izatea

c) Azken ebaluazio tarte arrunta onartu ez zaien pertsonen eta tarte horren amaiera data 2022ko abenduaren 31 edo aurrekoa izan bada. Egoera honetan aurkitzen diren eskatzaileek 6 urteko ebaluazio tarte berri bat egin ahal izango dute aurkeztutako, eta negatiboki ebaluatutako, azken tartearen urte batzuekin eta, gutxienez, tarte horren ondorengo 3 urterekin. Batera aurkeztutako bi tarte edo gehiagoren aurreko ebaluazio negatiboaren kasuan, seiurteko berria azken ikerketa-tartearen berezko urteekin soilik osatuko da.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 89.1 artikuluan aurreikusitako amatasun- edo aitatasun-baimenak, seme-alabak edo ardurapean dituen lehen mailako beste senide batzuk zaintzeko eszedentzia-egoeran dauden eskatzaileak, edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran daudenean, seiurtekoak ebaluatzeko eskaeran, baimena hartu duen edo eszedentzia-egoeran egon den urteak – eta urte horietan argitaratutako ekarpenak – sartu ahal izango dituzte.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eta aukera-berdintasunaren ekitatea eraginkorra lortzeko estrategia orokor baten barruan, jarduera zientifikoa eta ikertzailea ebaluatzeko ikerketa-

tarteak zenbatzeari dagokionez, hala nahi duten eta aurreko paragrafoan deskribatutako egoera horietakoren batean dauden pertsonak urtebete luzatu ahal izango dute indarrean dagoen azken seiurtekoa izan duten baimen edo eszedentzia bakoitzeko. Baimen edo eszedentzia-egoera horiek 2019ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartekoak izan beharko dute. Seiurtekoaren luzapena bizirik dagoen azken seiurtekoari aplikatuko zaio.

Aurreko neurriaren alternatiba gisa, lau ekarpen aurkeztu ahal izango dira, bost ekarpen nagusien ordeztu, baldin eta ebaluatu beharreko sei urteko tartean eskatzaileak behar bezala justifikatu badu ANECAREN zuzendariaren 2025eko otsailaren 2ko Ebazpenaren lehenengo atalean (Xedapen orokorrak) zerrendatutako baimenak, eszedentziak edo bajak hartu izana. Ebazpen horren bidez argitaratzen dira unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ebaluazioetan berdintasuna, bateragarritasuna eta inklusioa bermatzeko irizpideak. Amatasun- edo aitatasun-baimenen kasuan, baimenaren gutxieneko iraupena 16 astekoa izango da. Eskatutako seiurtekoa lau ekarpenekin eman ahal izango da, eskatutako bost ekarpenen ordeztu, gutxienez 24 puntu lortzen badira (30 izan beharrean).

Hirugarrena. Eskaera aurkezteko epea.

Ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskabideak aurkezteko epea 2026ko martxoaren 9tik 30era izango da.

Laugarrena. Ebaluazio-eskaera betetzea.

1.- Interesdunaren eskaera bide telematikoz egingo da, aplikazio informatikoa erabiliz, ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 27.6 artikuluan (ekainaren 23ko BOE) eta azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Dekretu hori abenduaren 28ko 350/2010 Dekretuak aldatu zuen, eta Agentziaren webgunean argitaratu zen (www.unibasq.eus).

2. – Bertan, datu pertsonalez gain, kontratuaren modalitatea eta ebaluazioa edo txostena zein ezagutza-esparrutarako eskatzen den adierazi beharko da. Deialdi berean, eskatzaileak nahi adina ikerketa-tarte eskatu ahal izango ditu. Tarte ebaluagarri bakoitza zehazteko, 1994ko abenduaren 2ko Aginduaren 5.1 eta 10. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

3. – Eskabidean, ebaluatu beharreko ekarpen guztiak jaso behar dira. "Ekarpentzat" hartuko da 1994ko abenduaren 2ko Aginduaren 7. artikuluan eta abenduaren 3ko CNU/1181/2019 Aginduaren hirugarren atalean ezarritako ebaluazio-irizpide orokorretako batean sailka daitekeen edozein unitate. Irizpide orokor horiek osatu egiten dira CNEAREN 2025eko abenduaren 10eko Ebazpenak eremu bakoitzerako onartutako ebaluazio orokor eta espezifikotarako irizpideekin. Ekarpen bakoitzak honako hauek jaso beharko ditu:

- Aurkitzeko eta identifikatzeko behar diren datuak.
- Identifikatzaile iraunkor bat (DOI, Handle, ARK, ARK, SWHID, edo, oro har, URI-URL bakar iraunkor bat).
- Gordailu-biltegiarako esteka, naitaezkoa bada, edo gordailu hori.

Ikerketaren helburu eta emaitza nabarmenenak jasotzen dituen "laburpen motza" gehitu behar zaio ekarpen bakoitzari, aplikazio telematikoak ezarritako gehieneko luzerarekin. Banakako laburpenen ordeztu, ekarpen guztiak barne hartzen dituen laburpen bakar bat aurkez daiteke.

Era berean, eskatzaileak ikerkuntzaren "garrantzi- eta inpaktu-zantzuak" aurkeztu beharko ditu. Zantzu horiek kontatzean, ordena honi jarraitzea gomendatzen da:

1. Ezagutzaren aurrerapenari egiten dion ekarpena (originaltasuna, berrikuntza, lehentasun tematikoa, eztabaida zientifikorako ekarpena, ekarpen metodologikoa, besteak beste).

2. Ekarpeneren inpaktu zientifikoa (erabilera, beste egile batzuek egindako erreferentziak, kalitatea, barneratzea eta hedabidearen eragina, besteak beste).
3. Ekarpeneren eragin-soziala (aipamen eta beste egile batzuek egindako erreferentziak, kalitatea, internalizazioa eta hedabidearen inpaktua, besteak beste.).
4. Zientzia irekiari egindako ekarpena (irekitasun-maila, FAIR printzipioen betetze-maila datu-multzoetan, datuen ekarpena, software libreari ekarpena, besteak beste.).

Ekarpenak talde-lan baten emaitza izanez gero, egile bakoitzak bere curriculumean sar dezake ikerketa hori. Nolanahi ere, dagokion laburpenean espresuki aipatu behar du egileak talde-lanari egindako ekarpen pertsonala.

Eskatzaile bakoitzak beste bi ordezkoko ekarpen aurkeztu ahal izango ditu, erreferentzia egokiekin eta ondo identifikatutakoak, hasieran aurkeztutako beste bi ordezkara ditzaketenak eta ebaluazio-prozesuan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzeko kalitate eskasekotzat jo daitezkeenak.

Halaber, eskatzaileak honako hau jaso beharko du:

a) "Curriculum vitae" normalizatua (FECYT eredia gomendatzen da), ebaluatu beharreko urteetako ikerketa, garapen eta berrikuntza jarduerak soilik barne hartzen dituenak. Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretua garatzeko ikerketa-jarduera ebaluatzeko prozedura ezartzen duen 1994ko abenduaren 2ko Aginduan xedatutakoaren arabera, CV honek honako hauek jaso behar ditu:

1. Historia zientifiko osoa.
2. Seiurtekoari dagozkion urteetan eta gutxienez aurreko hiru urteetan finantzatutako proiektuetan parte hartzea.
3. Eskatutako seiurtekoaren aldiari dagozkion argitalpenak, gutxienez..
4. Egonaldiak atzerriko zentroetan.
5. Gonbidapen bidez edo antolatutako kongresuetarako komunikazioak eta ponentziak, eskatutako seiurtekoari dagokion aldiaren.

b) Ebaluatzea eskatzen den denboraldiko Unibertsitateak edo Ikerketa-erakundeak emandako zerbitzu-orri eguneratua, 2025eko abenduaren 31n betetako lanpostua eta ebaluatu nahi den tarte jasotzen dituenak, eta eskatzaileak aldi horretan izan duen dedikazio-araubidea jasotzen duena. Zerbitzu-orriak deialdi hau Unibasqen webgunean argitaratzen den egunaren ostekoa izan beharko du.

c) Ikerketa "Zerbitzu-orrian" jasota ez dagoen zentro batean egin bada, kontratuen, izendapenen, beka-kredentzialen kopia soila edo antzeko beste dokumentu fede emaileak gehitu behar dira. Bertan kontratu edo beka epea eta dedikazio-erregimena adierazi behar dira. Edozein kasutan ere, beti goi-mailako zentroa edo bere jardueraren nagusia eta ohikoa ikerketa dela izan behar da.

4.- Unibasqek eskatzaileari edozein momentuan dokumentazioa eskatu diezaiotke alegatutako meretzimenduak edo legalki eskatutako bete behar diren baldintzak egiaztatzeko. Unibasqeko ebaluazio prozesuetan gardentasuna eta sinesgarritasuna sustatzeko, eskatzaileek informazio egiazkoa eta zehatza emateko konpromisoa hartzen dute. Horrela ez bada, erantzukizun administratibo edo penalez gain, Unibasqeko ebaluazio-prozesuetan pertsonak edo erakundeak emandako informazioetan irregulartasunen aurrean prozedura onartzen duen 2019ko ekainaren 24ko Unibasqen Etika eta Eskubideen Batzordearen Akordioan aurreikusitakoa aplikatuko da.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 95 bis eta 95 quinquies artikuluek tasa bat ezartzen dute ikerketa-jarduera ebaluatzeko ebaluazio-eskaera bakoitza izapidetzeagatik, eta Agentziaren webgunean ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

Bostgarrena. Eskaera formalizatu

1.– Eskabidea bete ondoren, interesdunak Unibasqen aplikazio informatikoaren bidez sartu beharko dira egoitza elektronikora, eskabidea formalizatzeko eta dagokion tasa ordaintzeko.

2.– Eskabidearen osteko izapideak, bide elektronikoz, euskadi.eus web-orriaren bidez egingo dira, "NIRE KARPETA" atalean. Bide hori erabiltzeko, eskatzaileek sinadura elektronikoen ziurtagiri aitortua izan beharko dute.

Seigarrena. Ebaluazio-irizpideak.

1.– Ebaluazio-irizpideak irakasle funtzionarioei aplikatzen zaizkien berberak izango dira, CNEAIren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren 2025eko abenduaren 10eko Ebazpenean ezarritakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, ikerketa-jarduera ebaluatzeko irizpideak argitaratzen dira (BOE Zk. 304, 2025eko abenduaren 19a, ostirala).

2.– Ebazpen horretan, 1994ko abenduaren 2ko Aginduaren 7. artikuluan eta abenduaren 3ko CNU/1181/2019 Aginduaren hirugarren zenbakian ezarritako irizpide orokorrak beteko dira. Aipatutako irizpide orokor horiek CNEAIk 2025eko deialdirako ebaluazio-eremu bakoitzerako ezarritako berariazko irizpideekin osatzen dira.

Zazpigarrena. Ebaluazio-prozedura

1.– Deialdia Unibasqeko irakasle eta ikertzaileen akreditazio-programako batzordeek ebaluatuko dute. Batzorde horiek jakintza-arloen arabera antolatuta daude; honela, hain zuzen ere: 1.- Medikuntza eta Osasun Zientzietako Batzordea; 2.- Irakaskuntza Teknikoen Batzordea; 3.- Zientzia Esperimentaletako Batzordea; 4.- Giza Zientzietako Batzordea; 5.- Zientzia Juridikoak eta Ekonomia Zientzietako Batzordea; eta 6.- Gizarte Zientzietako Batzordea.

Diziplinarteko eta diziplina anitzeko 0 esparrura aurkeztutako eskabideak formalki eskatzaileak Unibasqekin izandako harremanean adierazitako 6 komiteen artean jakinarazitako ebaluazio-batzordeari esleituko zaizkio, eta CNEAIren 0 eremu horretarako irizpide espezifikoak aplikatzen esperientzia duten akademiko eta ikertzaileen laguntzarekin ebaluatuko dira.

Unibasqen ebaluazio-lan hori guztia arduraz kudeatuko du, ebaluazio-programa desberdinetan duen esperientzia eta jakituria oinarri hartuta; besteak beste, Ikertramoak programa, EUSeko unibertsitateetako irakasle ez-iraunkorrei edo zerbitzu aktiboan dauden ikertzaileei zuzendua, aipaturiko programa hori berariaz sinaturiko akordio, hitzarmen edo kudeaketa-gomendioen baitan eta programa hori ebaluatzeko protokoloaren babesean garatutakoa (Unibasqeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez onartua) eta hura ere ANECA-CNEAIrekin koordinatutakoa.

Prozesu horretan, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuak baino ez dira kontuan hartuko, eta, beraz, ez da entzunaldi-izapiderik egingo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Zuzendariak izendatutako Ebaluazio-batzordeek edo espezialistek egoki irizten badiote, eskatzaileei curriculum vitaean zerrendatutako ekarpenen baten edo guztien kopia bidaltzeko eskatu ahal izango diete.

3.– Iritzi teknikoa zero eta hamar bitarteko zenbaki baten bidez adieraziko da, eta gutxienez sei

puntu beharko dira ebaluazio positiboa lortzeko sei urteko tarte batean.

4.– Ebaluazioan, 1994ko abendaren 2ko Aginduaren 7.artikuluaren eta abenduaren 3ko CNU/1181/2018 Aginduaren hirugarren zenbakian ezarritako irizpide orokorrak beteko dira. Irizpide orokor horiek 2025eko deialdirako eremu bakoitzerako onartutako ebaluazio-irizpide orokor eta espezifikoekin osatzen dira.

5.– Unibasqek behin betiko banakako ebaluazioa ezarriko du, Ebaluazio-batzordeek eta adituek emandako kalifikazioak kontuan hartuta, eta, ebaluazio-prozesua amaitutakoan, ebatzi egingo du.

Zortzigarrena. Ebazpena eta errekurtsioak

1.– Unibasqeko zuzendariak baterako ebazpen bat jarriko du <https://www.euskadi.eus> iragarki-taula elektronikoan, emaitzak jakinarazteko. Ebazpen hori iragarki-taula elektronikoan argitaratzen den data ebazpenaren jakinarazpenaren data formala izango da, xede guztietarako. Nolanahi ere, ondorengo egunetan ebazpen indibidualizatua bidaliko zaie egoitza elektronikoaren bidez.

Ebazpen horren aurka berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, Unibasqen aurrean, hilabeteko epean, edota, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegi eskudunetan, bi hilabeteko epean (bi kasuetan, ebazpen kolektiboa iragarki-taula elektronikoan jakinarazten denetik aurrera kontatzen hasita).

2. – Ebazpenek ebaluatutako tartea adierazi beharko dute, bai eta positiboa edo negatiboa izan den eta, beraz, txostena aldekoa edo kontrakoa den ere. Era berean, ebaluazioa kontrakoa bada, dagokion Batzordeak egindako ebaluazio-txostena eskuratu ahal izango da, eskaera egiten den aplikazio informatikoaren bidez.

3. – Ebaluazio-ebazpenak interesdunei jakinarazi behar zaizkie, deialdi honetan eskabideak aurkezteko irekitako epea amaitu eta sei hilabeteko epean, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoa.

Bederatzigarrena. Dokumentu-erregimena eta datu pertsonalen inguruko eskubideak.

1.– Datuak babesteko dagoen araudiaren arabera, (kontuan hartuko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa (RGPD), baita 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan jasotakoa ere), interesdun pertsonak emandako datuak fitxategi pertsonal automatizatu batean sartuta gera daitezke. Datu hauen titularra Unibasq izango da eta Agentziak egindako deialdi prozesuak garatzeko erabiliko ditu, betiere interesdun pertsonak bertan parte hartzen badute.

2. – Datu pertsonalak "Irakasleen ebaluazio programak" izeneko tratamendu jardueran tratatu eta sartuko dira.

- Arduraduna: Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia.
- Helburua: Irakaslearen irakaskuntza, ikerkuntza, ezagutza zabaltzearen eta kudeaketa merituak ebaluatzea, programa desberdinen arabera.
- Legitimazioa: Beharrezkoa den tratamendua, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- Hartzailleak: ANECA, UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitatea eta Berrikuntza saila.
- Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/034900-cap2-eu.shtml>

- Araudia: Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra
eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Hamargarrena. Errekurtsoak

Deialdi hau eta haren oinarriak behin betikoak dira administrazio-bidean, eta, haien aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekiko auzien jurisdikzio-organoei, bi hilabeteko epean, deialdia Unibasqeko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen bada, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. eta 46. artikuluetan. Halaber, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Agentziari, hilabeteko epean, adierazitako 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluei jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 27an.

Federico Recart Barañano

Unibasq-eko zuzendaria